

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA**132/2025 prozedura arruntan epatzeko iragarkia**

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikulua arabera, argitara ematen da errekurtsoa jarri dela eta espediente Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegira bidali dela (132/2025 prozedura arrunta) azaroaren 21eko 118/2024 Foru Aginduaren aurka. Foru Agindu horren bidez, karrerako funtzionarioak izendatu ziren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion deialdian, karrerako funtzionario gisa sartzeko, administrazio bereziko eskalan, teknika-rien azpieskalan, teknikari laguntzaile mailan, 19017 deialdian, sukaldari gisa. Salbuespenezko egonkortze-prozesua da.

ALHAOn dagokion iragarkia argitaratuz, interesa duten guztiak epatzen dira, eta bederatzi eguneko epea izango dute autoetan agertu eta pertsonatzeko, iragarki hori argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 6a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
ERNESTO SAINZ LANCHARES